

- **Zer berri:** Irailaren 22an 36ko gerrako biktimak oroituko dituzte
- **Entzutekuak:** Ainhitze Elizburu eta Jon Martinez marmeladagintzan

soraluzeko
hamabostekaria **249.** alea
2011ko irailaren 16an

pil-pilean




Txilemina bihotzean

MARRASKILO TOUR 2015

V. SORALUZECO MENDI ITZULIA

IRAILAK 25
GOIZEKO 6 ETAN
PLAZA BERRIAN
BAZKARIA 15-00TAN

Izen ematea: Kutxa **910 066 210** / **910 214 710** kontuan diru sarrera egin (kontzeptuan, izen abizenak jarri). Frogagiria dortsala hartzeko erakutsi beharko da. Informazio gehiagorako **943751 104** zenbakira deitu astearte eta osteguna **19:30**etatik **20:30**etara



Ni baino hobeto daguana, txarrrri galanta argazki lehiaketa



Egoera politak, momentu zoragarriak, parrandak, ondokoaren ajea. Bidali une ahaztezin horiek eta irabazi nekazal-turismo batean astebukaera bat.



Bidali argazkiak:

aldizkaria@pilpilean.com helbidera edo **Pil-pilean Euskara Elkartera** (27. postakutxa), irailaren 30a baino lehen.

Oinarriak



EGOITZ UNAMUNO



ARITZ ARIZAGA

GIZON BERDE HORREK

“Alto! Salga del vehículo y póngase ahí!”. Horixe esan jotsen aurreko baten hazurretaraino armatuta ibiltzen diran gizon berde horretako batek koinatuari basarrirako bidegurutzian. Berrehun metro egin eta “kontrola”. Bigarren aldixa dok aurten. Terrorista edo droga trafikantaren baten bila ibiliko zittuazten eta nere koinatuak hippy itxura pixkat be badaukanez.... Etxakixat.

Oin bi aste Bergako 20 urteko lehengusinia gelditu juen Antzuolara bidian. Eurixa jiharduan eta esan jotsen ia aterkina hartu leikien kotxetik. “Callese y mire para el otro lado!”. Terrorista edo droga trafikantaren baten bila ibiliko zittuazten eta nere lehengusinia begixak beltzez pintauta ibiltzen danez... Etxakixat.

Ni lau bat aldiz geratu najuek aurten. Durangon, Elgoibarren, Bergaran, San Prudentzion... San Pudentzion ordubetik gora egon nintzuan eurixa zarra-zarra zala. Tonto samarra nok. “¿Usted no será independentista?” galdetzen dosten bakoitzian baietz esaten jotset eta klaro horrek zer esan haundixa emoten jok. Terrorista edo droga trafikantaren baten bila ibiliko zittuazten eta nik autuan atzekaldian Arrate Irratiko pegatinia daukatenez bis-bistan... Etxakixat.

Ez dittuk hemenguak baina 36xan nere aittitta mutikotxua zanian be hemen ei jebixazen gizon berde horrek beste batzuekin batera eta orduan etxauan ETA-rik. Zertarako dauaz hemen? Etxakixat. Baina oin be badaok mordoxka bat baztarretan eta susmua jakat ETAk behin betiko lagatzen dotsanian be ez dabela hemendik alde egingo. Etxakixat. Oñatiarrak esaten daben moduan, “igual bai be!”. Hiri ze pentsatzen jak Aritz?

“Susmua jakat
ETAk behin
betiko lagatzen
dotsanian be ez
dabela hemendik
alde egingo”

Egoitz Unamuno

“Ez juat
pentsatzen
“adiós” esan eta
juango diranik”

Aritz Arizaga

Kaixo Egoitz!
Neu be gelditu izan najuek. Pentsatzen jarritta, Gasteizera juan eta etorri egitten dotenetik sarrixago. Gasteizeko autopistan beti hango edo hemengo peajian jartzen dittuk, eta noiz edo noiz tokatu biharko. Hala eta be, behin peajetik kanpo geldittu ginduezen. Autopista barruan bertan, Arrasate parian. 120ra gindoiazten eta bat-batian horietako batzuekin tope eta golphian frenatu bihar. Txakur eta guzti jeuzen. Altua emon ostian, “Bajese y ábranos el maletero”. Autopista erdixan hantxeni, oinez, txalekua jantzi edo ez jantzi pentsatzen. Hankak flanan moduan, horrenbeste arma inguruan ikusitta.

Etxakixat zeren bila ibiliko zittuazten, baina egun hartan autopistako peaje guztietan kontrola jeuan. Autopistia hartuta jeken. Eta holako zenbat egingo ete dittuen etxakixat baina seguru najaok bakarra egin ta neu parian tokatzia ez zala izango.

Etxakixat noiz arte egongo diran, baina ez juat uste hemendik alde egitteko asmo askorik dakenik. Heuk esan duan moduan, ETA egon aurretik bajeuzaten hemen. Gero be egongo dittuk. Ez juat pentsatzen “adiós” esan eta juango diranik. Eta egixa esan, hori holan izanda be, beste norbaittek hartuko jok euren lana orduan. Seguru najaok iñun be ezin dala trankil bizi. Karreteretako (eta bestelako) kontrolak leku guztietan egitten dittuk, ETA modukorik ez dauan lekuetan bebai. Pentsatzen jatak hola bizitzera kondenatuta garela, bai herrialde honetan, baita inguruko gehixenetan be.

Zer egin geinkek honekin? Oinez ibili. Baina oinezkuak gelditzen be hasiko dittuk orduan. Gainera oinez ezin dok oso urrin heldu, gaur egungo mundu azeleratu honetan...

Txintxo ibili!

Goguan hartzeko

Kupel txarretik, ardo onik ez.
Euskal atsotitza



GUTUNAK

Pil-pilean aldizkariko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten gutxiei aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehienez gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehienez 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azaldutakoa, Pil-pilean aldizkariko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitzeke gutuna jaso den data kontuan izango da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehenetasuna izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.
- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, “herriko jubilatutako batzuk” edo “aizkide batzuk” edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **bel-tzezkorik** azalduko testuan.
- Epea: aldizkaria argitaratzen den asteko martitzen eguardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saibilburuordetza



SORALUZETAKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Arrate Gisasola Izeta
Kendu ezin deskuen
maittasun besarkadia

A sier eta Iñakin panela amorruz apurtuta ikusi dot kailian. Nere hauskortasuna ezkutatzeke automatismoz sikatu dot masailetik behera zetorkidan lengo malkua. Inguruko "ordena" mantentzeko hobe hola, ezer pasatuko ez balitz moduan jardutia. Baina gaurkuan antzerki honen partaide ez izatia erabaki dot. Nahikua!

Bigarren malkuari masaileko bidia egitten laga detsat, pentsakor nago, sentimenduak ulertu nahixan, hamar urte pasatu dira eta ondiokan bekontu eske datozkigu gure herriko infernuen errudunak.

Hirugarren eta laugarren malkuekin batera aurrera begiratu nahi izan dot. Zazpirehun argazki lerrokatuta topatu dittut oinguan partean; duintasuna eta zintzotasuna jaso dot zuen begiradetatik. Lasaittuz eta indartuz noia zuekin.

Irrifar bihurri batekin doazkit oin azken malkuak. Urtebetian alkarrekin egoteko milaka kilometro, kristal lodi bat, kronometrutako deixak eta interbenitutako kartekin be gure ametsak marraztu dittugu.

Sentittu dot barrero azken bisittako maittasun besarkadia, Ani. Antzerki honi aurre egitten lagunduko destana, zurekin, zuekin, naizena, garana izateko kendu ezin deskuen maittasun besarkadia.

Ainhitze Elizburu eta Jon Martinez, mermelada egileak

Zeleta baserriko fruta-arboletatik jasotako frutekin mermelada egiten dihardute Ainhitzek eta Jonek. Orain lau hilabete tailertxo bat eraiki zuten eskuz, fruta-arbolen ondoan. Badira hiru hilabete mermelada egiteari ekin ziotela eta oraindik ere "abentura" horretan buru belarri jarraitzen dute bi gazteok.

Etxian egindako mermelada ekologikua da zuena.

Bai osagai nagusixa etxeke frutak dira; sagarrak, mada-rixak, okaranak, melokotoiak, baso-masustak, pikuak... Kainaberazko azukar ekologikua eta limoi ur naturala be erabiltzen dittugu. Prozesu dana eskuz landutakua da eta modu tradizionalian.

Zela akordau jatzue mermeladia egittia?

Azken bi urtietako udazkenak Frantzian emon dittugu mahatsa eta frutak batzen. Kanpoko jentiandako lanian jardun ostian herrira bueltan, fruta-arboletako fruta gehixenak lurrian ustelduta topatzen genduzen. Hori izan mermeladia egittera bultzatu gaittuan arrazoi nagusixetako bat.

Epe laburrera begira zein helburu daukazue?

Gaztañerre perixia gure mermeladak ezagutarazteko aukera ona dala ikusten dogu. Bestalde guretzat lurretik gertu lana egittia bada helburu sendo bat, asko asetzen gaittuana gainera! Zeletan urtietan mimo haundiz landutako danari jarraipena emotia be bada beste bat!

((ENTZUTEKUAK))



Jon eta Ainhitze Zeletako
fruta-arboletan

Nekeza izan da proiektua martxan jartzia?

Idea izatetik proiektua gauzatzeko pauso hori emotia izan da gehixen kostatu jakuna baina etxeke eta lagunenganduzen laguntza izan dogu horretarako. Lan honek eskatzen daben konstantziara eta errit-mora ohitzia be zaila da batzutan.

Ingurukuen laguntza jaso dozue orduan.

Bai! Eskerrak emotia nahi dotsegu familixako eta laguneri proiektuakin animatu eta tailertxua egitten laguntziarren. Ez dogu ahazten oin gutxi juandako aitxitxa Asensiok, baita amama Mariak be bizi osuan zihar egindako lana, beraiei esker emoten dau lur honek frutia. Kate luze baten emaitza da mermeladak egittia.

Zela erosi geinke zuen mermeladia?

Momentuz zuzeneko salmenta egitten dogu eta mermeladia erosi nahi dabeneke guri eskatzia beste-rik ez dauke.

"Mermelade-
tako osagai na-
gusixa hemengo
frutia da"

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

36ko gerrako biktimak oroitzeko ekitaldia irailaren 22an

Data seinalatu horretan Udalak Soraluze 1936 Lan Taldearen laguntzarekin, oroimen eta aitortza ekitaldia egingo du. Egun guztian zehar "75 urteko isiltasuna hausten" erakusketa ikusgai izango da Plaza Berrian. Iluntzeko 20:00etan berriz, lore eskaintza egin eta sufrimenduaren aitortza eta justizia aldarrikatzen duen agiria irakurriko dute. Udalak dei egiten die soraluzetar guztiei bertaratu eta ekitaldian parte hartu dezaten.



Iturria: Soraluze 1936 lan-taldea.

Erreketek herrian sartu ziren eguna

Irailaren 22an beteko dira 75 urte Frankoren aldeko tropak herrian sartu zirela. Hogeitaka urtetan, Francoren diktaduraren babesean, irailaren 22a jai-eguna izan zen Soraluzen. Egun horretan zezena eta musika izaten ziren eta desfileak ere bai.

Honela kontatzen du Tropa Frankistak herrian sartu zireneko "Astilarra" ezizendunak "Euzkadi en Guerra" liburuan: "Errebeldeak iluntzean sartu ziren herrian, elizako kanpaiak jotzen zituzten bitartean (ehundaka soldadu Elizburu kalean behera). Eskerrak emanez Salba bat jo eta gero euren amorrua askatu eta lapurreta eta mendeku gosea zabaldu ziren herrian".

Bizikale elkarte sari zuzenak banatzen

Bizikale merkatari elkarteak, herriko merkataritzak bultzatzeko aldera, 100, 50, 10 eta 5 euroko 58 sari banatuko ditu herriko denda eta elkarreetan. Sari zuzenak izango dira eta erosketak egin ahala banatuko dituzte txartelak. Guztira 500 euroko diru saria banatuko da.

1971ko kintoen bazkaria

Urriaren 8an, eguerdiko 14:00etan, 1971ko kintoen bazkaria egingo da Txurruka jatetxean. Jai horretan parte hartu nahi duenak 55 euro sartu beharko ditu ondorengo Kutxako kontuan: 2101 0062 18 0127885044. Kontzaptuan, izena jartzea komeni da.

"Gure Balioak" lehiaketaren 2. edizioa antolatu du DEBEGESAK

Sariketa honek eskualdeko pertsona edo erakunde baten ibilbidea aintzat hartzen du. Helburua honako gizarte balioak sustatzea da: integritatea, errespetua, ekintzaitasuna eta lankidetzaren elkarlana. Hautagaiak bailarako herritar, enpresa, elkarte, hezkuntza edo ikerketa zentro eta erakundeek aurkez ditzakete. Bertan jaioak, bertan bizi edo lan-ibilbidea bertan garatu dutenak izan behar dira. Proposamenak jasotzeko epea 2011ko urriaren 7an ezarri dute. Oinarri guztiak: gurebalioak.com.

Irailaren 27an hitzaldia banka etikoaren gainean

Sariketaren aurkezpen ekitaldi egunean Joan Antoni Melé, Triodos Bank-eko zuzendari ordearen hitzaldia antolatu dute, banka etikoaren gainean: "Dinero y conciencia. ¿A quién sirve mi dinero?".

Asierren eta Iñakiren omenez

Irailaren 8an 10 urte bete ziren Asier Heriz eta Iñaki Saez kotxe istripuz hil zirela, Lurdes Txurruka preso politikoa bisitatzera ziozela. 100 lagun inguruk hartu zuten parte herriko bi gazteak oroitzeko zapatuan burututako giza katean eta ondorengo ekitaldian. Lore eskaintza eta agurra dantzatu zieten.



TXURRUKA JATETXEA

www.txurruka.com

943 75 15 81



Gloria Galarraga zendu da

Alcala de Henares-en hil da 85 urte zituela. 22 urterekin Mesedeetako karitatean kofradiako lekamea egin eta Palencia-ra joan zen bizitzera, bertako ospitalean erizain lanak egitera. Urte luzeak eman zituen bertan haur eta nagusi behartsuenei laguntza eskaintzen. Bizitzako azken urteak Madrilan eman ditu, abuztuan hil zen arte.

Iñaki de Miguel artisaua hil da

Itxasoibaserriko Iñakide Miguel artisaua aurreko asteburuan hil zen 81 urte zituela. Egurgintzan egindako lanengatik egin zen ezaguna. Berak eraberritu zuen Andremariaren zeruratze parroko atariko egurrezko sabaia, 1666. urtean eraikia. De Miguelek 80. hamarkada erabili zuen eraberritze lanak egiteko.

**Matrikulak zabalik daude AEKn eta HHIko eskolan**

Euskara ikasi nahi dutenek aukera anitza dute herrian. AEK euskaltegiak astean hirutan eskainiko ditu klaseak martitzen, eguazten eta eguenetan, goizez, eguerdiz edo gabez, ikasleek beraiek aukeraturako ordutegietan. Bulego ordutegia honakoa da: astearte, asteazken eta eguena 19:00etatik 20:00ra. Tlf: 943 75 14 34.

HHI lantzen jarraitzeko aukera

Helduen hezkuntza iraukorreko eskolan lehen eta bigarren graduak, informatika, euskara, frantsesa eta ingelesa, bigarren hezkuntzako graduondoa eta eskulanak irakatsiko dituzte aurten. Ikasturte honetan izena eman nahi dutenek lehenbailehen egiteko eskatu dute, Baltegieta kalean dauden bulegoetan. Telefona: 943 75 30 17.

Ume eta helduen arteko komunikazioa hobetzeko tailerra

Guraso, hezitzaile zein bestelako helduek umeekiko harremanetan izaten dituzten komunikazio zailtasunei aurre egiteko giltzarri batzuk eskeiniiko ditu Nerea Mendizabal psikopedagogoak. Urriaren 19an hasita, eguazteneko, bi orduko 4 saio izango ditu tailerrak, 17etatik 19etarako ordutegian. Izena eman eta informazio gehiagorako Pil-pileanera jo: 943 75 13 04 edo euskara@pilpilean.com.

Haurtzarora, oinarri sendoekin

Etorkizunean izango garenarekin haurtzaro garaia duen garrantzia eta lotura abiapuntu hartuz, sasoi honetako ezaugarri orokorrak ikusi eta beraien emozioen aurrean (agresibitatea, amorruta, kasketak...) nola erantzun (ohiko

mehatxu, zigor eta sarietatik ihes eginez) aztertuko da tailer dinamiko eta partehartzaileetan. Ariketen bitartez, haur eta helduen arteko eguneroko harremanetan sortzen diren gatazkak gutxitzeko eta harremanak ez okertzeko teknikak landuko dira. Umeen osasun emozionala ere hizketagai izango da, emozio ezatseginak adierazteko bideak jarriz, errespetuzko komunikazioa oinarri hartuz eta mugen zentzua eta garrantzia jorratuz. Euskararen transmisioan familiak eta inguruak duen garrantziaz eztabaidatzeko aukera izango da.



Iker Aldazabal izango da mankomunitaterako ordezkaria

Aurreko eguazteneko Udabaltzarrean erakunde kolegiatuetarako ordezkariak izendatu zituzten. Udal Gobernu Taldearen proposamena baztertu eta oposizioak aurkezturiko emendakina onartu zuten (6 botu alde eta 5 kontra). Horrela, Iker Aldazabalek ordezkatu du Soraluze Mankomunitatean. Espainiako Vuel-tako mozioan, EAJk bere mozio

alternatiboa eraman zuen plenera. Azkenean bakoitzak bere mozioa aurkeztu zuen, oso antzekoak biak, eta biak onartu zituzten.



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Elizpe
Hertz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hertz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 behe, Soraluze

“Txilen lasaitasuna eta patxada sentitu dogu!”

Hango kontuen gainean galdetu eta berehala igartzen zaie tristura begietan. Urtebete egin dute Maite Goenaga eta Iosune Egañak (Soraluze, 1989) Txilen. Latinoamerikako Erasmus beka batekin, Biologiako 4. maila ikastera joan ziren bertara. Helmuga, Arica izeneko 185.000 biztanleko hiria.

Madrildik irten zirenetik 15 bat ordu eman zituzten bidaian, Aricara heldu ziren arte. Bidaia-aren hasieran, zetorkienaren ezjakintasuna eta urduritasuna ziren nagusi: *“Abenturara gindoiazan sentsazinua genkan, ze ezer ez zan jakinekua. Baina segiduan egin ginan bertara”*.

Heldu berritan egin zieten ongi etorri beroa dute gogoan: *“Bertako irakasle danak batzartuta zeren. Dana alde batera laga eta gu agurtzera etorri ziran. Ongi etorri berua egin zoskuen, patxuak, besarkadak... orduan konturatu ginan harremanak oso desberdin bizi dituela han”*.

“Eurak bizitzeko modu lasaixagua dauke. Esaterako, puntualitatia zer dan be ez dakixe”

“Las niñas de Soraluze”

Finak izan eta egunero joaten omen ziren unibertsitatera. Bederatzi ikasgai guztira, hemengoen antzeko gaiekin: *“Irakasle onak euki dittugu, nahiz eta han eskolak maila bajuagua dauken, asko ikasi dogu. Onena praktikak izan dira, oso dibertigarriak. Animalixak eruan bihar izaten genduzen klasera, egun baten arrain bat, hurrenguan txorixa... eta han ibiltzen ginan, ehizan!”*. Gelan eurak ziren atzerritar bakarrak, eta ikaskideak, maittekiro, *“Las niñas”* esaten omen zieten: *“Atzerritarrek egitten zittuen jaijetan ez gara apenas ibili. Ikaskidien kuttunak izan gara. Eurak bastante zoruak dira, gu baino askoz irekixaguak eta bizitzeko modu lasaixagua dauke. Esaterako, puntualitatia zer dan be ez dakixe!”*.

Aldarrikapenen ikasgaia

Unibertsitateko eskolez gain, beste modu bateko ikasgaiak ere jaso dituzte. Hango ikasleak hilabeteak daramatzate greban, hezkuntza justuago baten alde: *“Unibertsitatia oso garestixa da. Kredituetan sartzen dira ikasketak ordaindu ahal izateko. Gero, karrera amaitzen dabenian, lanian hasten dira kreditua ordaindu ahal izateko. Txilen ikastiak hamen balixo dabenan laukoitza balixo dau. Lotsagarrixa da”*.



Txapela buruan Hegoamerika guztian zehar

Urtebete askorako ematen du, baita bidaian ibiltzeko ere. Udako opor-
 rarak aprobetxatu eta Hegoamerikan
 zehar lau hilabeteko bidaia egin zu-
 ten: *“Txile goititik behera ziharka-
 tu dogu, dibertsitate ikaragarria
 daukela ikusi dogu. Arica ingurua
 sikua zan, nahiz eta mendixak ber-
 bertan daren. Rapa Nui edo Pazko
 Irla-n egon gara. Munduko irla isola-
 tuena da eta Txiletik hegazkinez bost
 ordutara dago. Txile da gaur egun, baina
 berez Polynesia da.*

*Argentinan be egon gara, Barilothen, Mendozan
 eta Ushuaian; Perun, sei egun hartu genduzen
 Inken bidia egitteko, edarra izan zan. Ondio
 goguan daukagu Machu Picchura heldu ginan
 momentua. Cuzco be ikusi genduan, Boliviako*

**“Argentinan
 be egon gara, Ba-
 rilothen, Mendo-
 zan eta Ushuaian;
 Perun, sei egun
 hartu genduzen
 Inken bidia
 egitteko.”**

Aingeru guardakoa

Diotenez, aingeru goardakoa beti eduki zu-
 ten ondoan. Dena primeran joan zitzaien,
 baita losneri lapurretan egin ziotenean
 ere! *“Karteria harrapatu zosten metruan
 nindoiala, eta lapurra harrapatzia lortu
 neban. Emakume heldu bat zan. Beran-
 gana jo neban kontu eske, bere poltsan
 eskua sartu eta holaxe berreskuratu neban
 karteria. Andria gainera, hartzekuekin, kontu
 haundixaguaz ibiltzeko esan zoskun!”*

*La Paz hiriburua be”. Orain Brasil, Argentina
 iparraldea eta Bolivia ikusteko gogoia dute.*

Aukeran atzerrian nahiago!

Handik bueltan desberdin sentitzen dute eu-
 ren burua: *“Beste lasaittasun bat daukagu
 gorputzian eta buruan, hango patxadia
 ez jaku guztiz juan ondio. Asko akorda-
 tzen gara Txilez eta han laga dittugun
 lagunetaz eta bueltatzeko kriston gogua
 daukagu!”* diote, *“Txileminez”*.

Etxea zapaldu orduko, atzerria buruan.
 Horixe egin nahi dute orain biek, Euskal He-
 rriatik ihes! Maitek, datorren ikasturtean Biolo-
 giako ikasketak Portugalgo Azore irletan amaituko
 ditu. Josunek berriz, hemen bukatuko du karrera, eta

**“Aukeria
 daukanak
 urten deixela
 hamendik
 korrika!”**

Txilera itzuliko da ekainean Masterra egi-
 tera. Horregatik, horrelako esperientzia
 bizitzeko aukera dutenei, aprobetxatze-
 ko deia egin diete: *“Aukeria daukanak
 urten deixela hamendik korrika!”*.

Iturria:
 Maite Goenaga
 eta Josune Egaña



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Kukutza, Bilboko Errekalde auzoko gaztetxea, erausteko agindua eman du Bilboko Udalak. Hamar urte daramatza zutik, eskaintza kultural izugarria izan du, auzoa biziberrituz eta beronen babesa jaso du. Ze arrazoi egon daitezke holako erabakien atzean?

Zegaittik ez dira errespetatzen bide ofizialetatik aparteko guniak?

MERTXE ARENAZA




Udalak problema bat moduan ikusiko dau, dirurik emoten ez daben gune bat edo arazuak baino emoten ez dittuan leku baten moduan. Alde bixetatik ipini leike. Negoziatzen ipinitta soluzinua topatu leike.

MAITE LETE



Bilboko Udalak gitxienez lokal bat emon bihar-ko lotseke, bertan edo inguruan. Ez behintzat kalian laga. Hola ixtia ez dot ondo ikusten.

JUAN CARLOS RIVERO



Dana politikia da, ez dago besterik. Udaltxiak geure eremuak kentzen doskuez eta espazixo publikua bai, baina eurak bakarrik erabiltzeko nahi dabe. Ez jata bape ondo pentsatzen desalojatzia.

JON MENDIZABAL



Interes pribatuak eta udaltletxianak dare hor atzian. Baina auzo guztian atxikimendua lortu dau Kukutzak. Ezin dabe indarrez kendu holako bizitzaz betetako leku bat, ezinbestekuak dira holako gune askiak.

Eman zure iritzia sarean



LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** Marrazkilo Tour 2011 edizioko bi kamiseta



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Xabier Retolaza

► **Koldo Heriz**, pelota taldeko kidia da aurreko aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

Musika eskolako matrikulazioa zabalik

Oraindik izena emateko aukera dago musika eskolan. Interesa duenak bertara joan edo 943 75 15 44 telefonora deitu dezake.

Urriaren 2an Kilometroak Azpeitian

Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiak Azpeitian egingo da urriaren 2an. Pila-pilean Euskara Elkarteak Soraluzetik autobusa antolatuko du nahikoa pertsonak izena ematen badute. Interesa duzuenok deitu 943 75 13 04 telefonora edo elkartetik pasatu.

Urratseko gazteenak Oñatira

Domeka honetan Urrats Dantza Taldeko 30 gazte inguruk Oñatiko Euskal Jaian hartuko dute parte. Dantzari eta lagunak Ezozki Bidetik abiatuko dira goizeko 9:30ak inguruan eta egun-pasa egingo dute.

Andramariak giro ederrean

Erandioko bandak, txikiendako puzgarriak, dantzaldiak, herri-kirolak, zezenak... izan ziren Andramari jaietan. San Roke Egunean 11 bikotek hartu zuten parte urteroko tortilla lehiaketan. Irabazleak Cristina Morales eta Joseba Gil. Bejondeiela!



Iturria: Nerea Isasti

Errekaldeko Mesedeetako Jaiak asteburuan

Gaur hasi eta domekara bitartean Errekalde auzoa festagiroan murgilduko da.. Egitaraua honakoa izango da:

Irailak 16 barixakua:

17:00etan Haurrentzako jolasak eta txokolatada
19:00etan Txistorra-jana
22:00etan Mus txapelketa (bikoteko 10 euro)

Irailak 17 zapatua:

12:00etan Erraldoi eta buruhandiak Iparraldeko gaiteroekin
13:00etan Paella prestaketa
14:30ean Herri bazkaria trikitilariekin
16:00etan Tute txapelketa
22:30ean Su artifizialak

Irailak 18 domeka:

12:00etan Tortilla lehiaketa (materiala etxetik eraman)
12:30ean 20 saskiren zozketa
15:00etan Jaien amaiera

Oharra: Zapatuko bazkariko menua: zizka-mizka hotzak, paella, ogia, edaria eta izozkia (10 euro).



Iazko Errekalde auzoko jaiak
Iturria: Mikel Valero

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



 **Desing**

Disenua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

Sorak bederatzi talde izango ditu 2011-2012 denboraldian

Soraluze Futbol Elkarteak datorren denboraldiko taldeen aurkezpena egin zuen aurreko zapatuan Ezozin. Aurten bederatzi taldek jantziko dituzte Sorako koloreak: Erregional Preferenteak, Erregionalak, Jubenilak (16-18 urte), Kadeteak (14-15 urte), Infantilak (12-13 urte), Alebinak (10-11) eta Benjaminak (8-9 urte). Kadete mailan nesken taldea osatu dute aurten

eta eskola kirola txapelketan ere parte hartuko dute txikienek.

Preferenteak 0-1 irabazi zion Ordi-ziari

Joan den zapatuan jokatu zuen Erregional Preferenteak bere denboraldiko lehenengo partidua. Ordiziaren aurka 0-1 irabazi zuten. Lehen partiduan 3 puntuak eskuratuta, laugarren dago sailkapenean.



Talde guztien argazkiak

Marraskilo Tour irailaren 24an izango da

Bosgarren edizioa bi aste barru Bizandu Marraskilo Tour mendi-martxak. Azkenaldiko egitaraua mantendu dute aurtengo: mendizaleak goizeko 6:00etan abiatuko dira Plaza Barritik 35 kilometroko mendi ibilbideari ekiteko (Sagar Erreka - Topinburu - Gallastegi-

torre - Krabelinaitz - Txurruken-Ezozibidea - Karakate - Atsedentxaboleta - Plaza Barrixa). Ondoren, bazkaria izango dute Plaza Barrixan, baita trikipoteoa ere.

Izena ematea Kutxan

Mendi itzulian parte hartu nahi dutenek Kutxako 2101 0062 1601 2187 1321 kontuan diru sarrera egin beharko dute, kontzeptuan izen-abizenak adierazita. Soraluze Mendi Taldeko bazkideek 8 euro ordaindu beharko dituzte, 10 euro besteez. Ordainagiria gorde behar da irteeran erakutsi eta dortsala jasotzeko. Egunean bertan irteeran ordainduz gero 15 euro izango dira.



Idoixa Yoga taldean izena emateko aukera

Idoixa Yoga taldeak astelehene-tik eguenera bitartean eskaintzen ditu erlaxatzen ikasteko klaseak. Goizez 10:00etatik 11:30era

eta arratsaldez 19:00etatik 20:30era bitartean. Izena eman nahi duenak 696 220 940 telefonora deitu beharko du eta Sabinengatik galdetu.

EMAITZAK

PELOTA

Idoate – Laskurain	21
Olaetxea – Patxi Ruiz	22
Xala – Peñagarikano	16
Idoate – Laskurain	22

FUTBOLA

Futbito txapelketa 2011

Ordizia K.E. – Sora (Erreg. pref.) 0-1

AGENDA

PELOTA

Zapatua 17 17:00etan Urdulizen
Gonzalez – Zabaleta
Idoate – Laskurain

Martitzena 20 19:15ean Adarragan
Xala – Laskurain
Erabakitzeako bikotea

Eguena 22 19:15ean Adarragan
Xala – Laskurain
Erabakitzeako bikotea

FUTBOLA

Zapatua 17 18:15ean Ezozin
Sora (Erreg. pref.) – Anaitasuna

Domeka 18 12:00etan San Migelen
Mutrikuarrak SBB – Sora (Erreg.)

Zapatua 17 16:00etan Ezozin
Sora (Jub.) – Bergara K.E.

Zapatua 17 11:00etan Unben
Eibartarrak F.T. - Sora (Kad.)

TXIRRINDULARITZA

Mikel Hernandezek 23 urte azpikoentzako bi karrera izango ditu asteburuan:

Zapatua 17, Oñatiko XXIV.
proba. Irteera: 9:30ean Oñatiko enparantzatik.

Domeka 18, Bergaran. Irteera: 10:00etan eta lasterketa Soraluzetik 10:45ean eta 11:15ean pasatuko da.

MENDI IRTEERA

Irailaren 25ean Karabieta, Untzeta eta Soraluze batzen dituen mendi ibilaldia egingo du Soraluzeko Mendi Taldeak. Irteera goizeko 9:00etan Estaziño kaletik.



Astelehenero kirol albistek

ZORION AGURRAK



Maia Unamuno
Zorionak xipixtin...
segi bizipoz hortaz gu
zipriztintzen politta!!



Egoitz Unamunetz
Segi Pil inguruak ametsez
betetzen eta inguruak
xaxatzen! Muxu pilaaaaaa,
bejondeikela!



Josu Leturiondo
Irailan 9xan 4 urte!
Zorionak eta muxu
haundi-haundi bat
etxekuen partez!



Josuf Elkanouni
Irailan 13an 4 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat Btisan, Zuhaitz eta beste
lagun danon partez!



Itziar Agirre eta Iñaki Larrañaga
Abuztuan 15ian eta irailan 7xan
urtiak bete dozezelako,
muxu eta besarkada haundi bana
familixa danan partez!



Miren Domingez
Abuztuan 11n 12 urte!
Muxu potolo asko
aita eta aman partez!



Nerea Iñurrieta
Irailan 27xan 21 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat etxekuen partez!



Peru eta Aiuri Gisasola
Zorionak sorgintxuak! Egunez egun,
irri txikixekin argitzen gaituzuelako...
maittasunez, etxeak eta Pil-lagunak!



Miren eta Goretti Alonso
Irailan 6xan eta urrian 11an
9 eta 5 urte! Zorionak eta
muxu bat etxekuen partez!



Mikel Ramos
Abuztuan 13an 8 urte!
Muxu asko asko eta irrifar
pilaaa izeko Maribin partez!



Eñaut Zerrejón
Irailan 11n 3 urte! Zorionak
mutil haundi eta muxu pila
familixa guztixan partetik!



Zuriñe Rodríguez L.
Abuztuan 19xan urtebete!
Zorionak sorgintxo,
etxekuen partez!

jaiotakoak

IRATI AGUADO ALBERDI
MAREN AGIRRE AZPITARTE
ASIER ALONSO OREGI
IREA ANDRES MARTIN
ISAAC ARMENDIA ETXEBERRIA
OINATZ BERETXINAGA HERIZ
SUAR BLANCO ELIZBURU
IRATI CALLES AGIRRE
ANDER GALLARDO ARIZNABARRETA
SARA NICOLETA LAPADAT
ZUHAITZ LARRAÑAGA ELGETA
AGOITZ MOURO PEÑALVER
IZARO RODRIGUEZ APARICIO
INTZA SALABERRIA IRIONDO
LAIDA SANCHEZ MARTINEZ
KAUTAR TALBI
IZARO VEGA ALVAREZ



hildakoak

LOURDES ARIZNABARRETA EGUREN
ELENA ASEGINOLAZA BADIOLA
JUAN FCO ASTIAZARAN MUGIKA
ASENSIO TXURRUKA AIZPIRI
MIGUE ANGEL DE LA CRUZ DIEZ
INES GONZALEZ BABARRO
M^a VICTORIA MAIZTEGI ARANDO
MARIANO SANJURJO FERNANDEZ
DOLORES URANGA URANGA
JOSE VERGEL GARCIA
RUFINA VIDAN RUIZ



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Soraluze 1936 Lan-taldea.

Joxe Mari Lete Larrañaga (1908-1938)

JOXE MARI LETE 1938AN ASTURIASEN FUSILATU ZUTEN

Joxe Mari Lete abertzalea zen eta gazte gaztetatik Soraluzeko Uri Buru Batzarrean hainbat kargu bete zituen. 1936ko uztailean altxamendu militarra jo zutenean EAJk herriko Defentsa Batzordeko Lehendakari izendatu zuen. Joxe Mari 28 urte bakarrik zituen orduan.

Irailaren 21ean, Frankoren tropak herrian sartu baino egun bat lehenago, eztabaida askoren erdian, herrian preso zeuzkaten tradizionalista edo eskuindarrak libre lagatzeko erabakia hartu eta betearazi zuen. Frankoren aldekoek herria hartzen zutenean izango zuten mendeku gosea apalduko zuelakoan hartu zuen erabakia.

Joxe Maria Lete bere jaioterritik urrun harrapatu zuten frankistek, Asturiasen. 1938ko uztailaren 2an gerra-kontseilua egin ostean fusilatu egin zuten Trubia herrian.

Hil aurretik gutuna bidali zuen etxera eta honela idatzi omen zuen:

“(…) lasai nago. Egon zaitezte denok lasai. Egin ditudan ekintza guztiak zuzenak izan dira eta zuzentasun hori da oraingo nere lasaitasunaren iturria. (...)”

EPOCA-GORO

SUKALDE ETA BAINUGELA ESTUDIOA

San Juan kalea 5. EIBAR • 943 700 216
www.epocasukaldeak.com



SUKALDEAK • BAINUGELAK • PROIEKTUAK • ERREFORMAK • DISEINUA



Azken etxebizitzak

Soraluzen

Entregatzeko epea
2011ko abendua
B.E.Z. %4



22 ETXEBIZITZA ETA GARAJE

Soraberri Promozioak Informazioa: **689 420 761**

Eraikitailea: Egaralur www.egaralur.net





aek-k
hitza
ematen
dizu

euskara ikasi
 eta euskaraz
 jakingo duzu

SORALUZE

Balategieta 2

Bulego orduak:
 19:00 - 20:00

Egunak:
 astearte / asteazken / ostegun

Telefonoak:
 Soraluze 943 75 14 34
 Eibar 943 20 13 73

soraluze@aek.org

eman izena

azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

aek


Gereño Kazetako
 para entendemos
 pour se comprendre



www.aek.org
 902 362 294

SORALUZeko URTARoEN ARGAZKI LEHIAKETA

Uda



Gaia: Uda adierazten duen Soraluze edozein argazki; natura, kalea, baserria.

Epea: urriaren 30ean.

Nora bidali: aldizkaria@pilpilean.com

Argazkien argitalpenak: aukeratutako 12 argazkiak 2012ko herriko egutegian argitaratuko dira. Horrekin batera argazki guztiekin erakusketa antolatuko da kiroldegiko erakusketa aretoan.

